

HUNTZA

Huntza 2014an Bilboko kaleetan sortutako musika taldea da. Taldekideak ostegun iluntzeetako trikipoteo eta Eguenero elektrotxarangan ezagutu eta noizean behin elkartzen hasi ziren, ongi pasatzeko asmotan. Taldeari forma ematen joan ziren heinean, kantuak konposatzen hasi ziren, bakoitzak bere esperientziatik jasotakoa elkarbanatuz. Taldearen lehen agerpena 2016ko martxoaren 8an izan zen.

Taldekideak honako hauek dira: Josune Arakistain, Uxue Amonarriz Zubiondo, Aitor Huizi Izagurri, Aitzol Eskisabel Ruiz, Inhar Eskisabel Ruiz eta Peru Altube Kazalis.

2016ko azaroan "Aldapan gora" kantuen bideoklipa kaleratu zuten eta arrakasta itzela izan zuen. Durangoko Azokarako Ertzetatik diska atera zuten eta Azokako salduenetakoa izan zen. 2017an Japoniaraino joan ziren kontzertuak ematera.

2020an Europan zeharreko bira antolaturik zeukaten, baina COVID-19 pandemiak dena bertan behera utzi zuen. Uda amaieran Euskadiko Orkestrarekin batera hiru abesti plazaratu zituzten: "Aldapan gora", "Olatu bat" eta "Lasai lasai".

Kantu ospetsuak hauek dira: Aldapan gora, Iñundik iñoare, deabruak gara, kalabazak, Gaztetxeak bizirik eta lasai lasai. Eta hauek bereien diskoak: Ertzetatik, lumak eta xilema.

Kanta: lasai lasai (huntza)

<https://www.youtube.com/watch?v=w3QPzUVx3Ps>

Letra:

Noizbait, iratxo bat

sorbalda gainean eseri zitzaidan ta

belarrira esan zidan:

ez det bi aldiz pentsatzerik nahi!

Bihotzetik bihotzera

esan zidan:

batera aspertuko gera

lasai, lasai...

Ze

SARRITAN GALDETZEN DIOT

NERE BURUARI

HEMEN EZ OTE DABILEN

DENA AZKARREGI.

SARRITAN GALDETZEN DIOT

NERE BURUARI

HEMEN EZ OTE DABILEN

Presa arerio,

minutuak momentu bilakatu eta

zuhaitzak dantzan ikusi,

dauden alfonbra ederrenetan.

Erlojuak ezkutatuz

zelaietan,

batera aspertuko gera

lasai, lasai...

Ai Ze

SARRITAN GALDETZEN DIOT

NERE BURUARI

HEMEN EZ OTE DABILEN

DENA AZKARREGI.

SARRITAN GALDETZEN DIOT

NERE BURUARI

HEMEN EZ OTE DABILEN

SARRITAN GALDETZEN DIOT

NERE BURUARI

HEMEN EZ OTE DABILEN

DENA AZKARREGI.

SARRITAN GALDETZEN DIOT

NERE BURUARI

HEMEN EZ OTE DABILEN

Egileak: Olaia Otxandorena eta Xabat Maritxalar.